Donostiako Zinemaldiak 66. edizioan estreinatuko diren film hautatuekin osatutako sorta bat aurkeztuko du Bilbon; Espainian argitaratu gabeko filmak dira. Azkuna Zentroak zinema eta ikus-entzunezkoen arloan sartzen du programa hau, eta aintzat hartzen ditu hala dimentsio historikoa –Zinematekaren bidez–, nola ikus-entzunezkoen ekoizpen garaikidea eta nazioartekoa.

Zinemaldia hasteko, Raúl de la Fuente nafarraren eta Damian Nenow poloniarraren artean zuzendutako *Another Day of Life* filma proiektatuko da. Canneseko jaialdian estreinatu zutelarik, Ryszard Kapuscinskiren izen bereko eleberriaren animazioko egokitzapena da. Ondoren, Japoniako Hirokazu Koreeda zuzendariaren *Manbiki Kazoku* film saritua egongo da ikusgai. Cannes 2018an 'Urrezko palma' irabazi zuen, eta, Zinemaldian, Donostia saria Emanaldi bereziak sailaren barruan aurkeztuko dute. Irango Jafar Panahi zuzendariaren *3 Faces* proiektatuko da hurrena, era berean Cannesen saria irabazitakoa: 'Gidoirik onenaren saria' irabazi zuen (Ex aequo). Kritikarien iritziz, harribitxia da film hori: hiru emakume erretratatzen ditu, antzina Pertsia izandako lurretan, ipar-mendebaldeko mendi urrunek osatutako dekoratu naturalean. Louis Garrel zuzendari frantsesaren *L'Homme fidèle* izango da ondorengoa, Zinemaldiak Bilbon emateko programa honetarako sail ofizialerako hautatua. Zikloa jarraitzeko, *The Sisters Brothers* egongo da ikusgai; film honetan, Frantziako Jacques Audiard zuzendariak western generoa jorratu du, eta Joaquin Phoenix, John C. Reilly eta Jake Gyllenhaal ditu protagonista. Libanoko Nadine Labaki zuzendariaren *Capharnaüm* ere eskainiko dute, Cannesen aurten 'Epaimahaiaren saria' eskuratu eta kritikaren gorespenak jaso dituen filma. Azkenik, Mamoru Hosodaren *Mirai* film japoniarrarekin itxiko da programa; familia osoarentzako animazioko filma izanik, Cannes 2018an jendea hunkitzea lortu zuen.

**Urriak 1 > 7 (astelehena > igandea)**
**Golem Alhóndiga Zinemak**
**4,5€ / 3,5€ Az txartelarekin**
**2,90€ (zinemaren festa. Urriak 1, 2 eta 3)**
**Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta www.golem.es**

El Festival de Cine de San Sebastián presenta una selección de películas inéditas en el Estado, estrenadas en la 66ª edición del Zinemaldia. Azkuna Zentroa enmarca este programa en el ámbito de cine y audiovisuales que contempla tanto su dimensión histórica, a través de la Zinemateka, como la producción audiovisual contemporánea e internacional.

El ciclo comienza con *Another Day of Life*, una película del director navarro Raúl de la Fuente y del polaco Damian Nenow. Estrenada en el festival de Cannes, es la adaptación animada de la novela homónima de Ryszard Kapuscinski. Sigue con la premiada *Manbiki Kazoku*, del director japonés Hirokazu Koreeda, 'Palma de oro' en Cannes 2018 y presentada en el Zinemaldia dentro de la sección Proyecciones especiales Premio Donostia. Continúa con la película iraní *3 Faces*, del director Jafar Panahi, también premiada en Cannes con el 'Premio al mejor guion' (Ex aequo). Una joya de película según las críticas, que traza el retrato de tres mujeres, enmarcados en un decorado natural: las remotas montañas del noroeste de la antigua Persia. *L'Homme fidèle*, del director francés Louis Garrel es el próximo filme, el elegido de la sección oficial para este programa de Zinemaldia en Bilbao. El ciclo continúa con la película *The Sisters Brothers*, donde el director francés Jacques Audiard, se pasa al wéstern con esta cinta protagonizada por Joaquin Phoenix, John C. Reilly y Jake Gyllenhaal. También se exhibirá *Capharnaüm*, de la directora libanesa Nadine Labaki, filme galardonado con el 'Premio del Jurado' 2018 en Cannes, y ovacionado por la crítica. Finalmente, el programa clausura con la película japonesa *Mirai*, de Mamoru Hosoda, una película de animación que emocionó en Cannes 2018, dirigida a un público familiar.

1 > 7 de octubre (lunes > domingo)
Cines Golem Alhóndiga
4,5€ / 3,5€ con tarjeta Az
2,90€ (fiesta del cine. 1, 2 y 3 de octubre)
Entradas: taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en www.golem.es

Bilbao | SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

Az Azkuna Zentroa AlhóndigaBilbao
www.azkunazentroa.eus




© Donostia Zinemaldia

ZINEMA CINE

# DONOSTIA ZINEMALDIA

**Donostia Zinemaldiaren 66. edizioa**

66º edición del Festival de Cine de San Sebastián

## URRIAK 1 > 7 OCTUBRE

(ASTELEHENA > IGANDEA LUNES > DOMINGO)

## ANOTHER DAY OF LIFE (UN DÍA MÁS CON VIDA)

**'Donostia Hiria' Publikoaren Saria**
Premio del Público 'Ciudad de Donostia'

**Astelehena, urriak 1** de octubre, lunes **/ 20:00**



Kapuscinski poloniar berriemaile bat da, idealista eta alferrikako kausen zalea. 1975ean Angolara, Gerra Hotzaren azken gudu-zelaira, bidaiatuko du. Han, okerreko agurrak ere ordain daitezke biziaz. Afrikako herrialdeak eta bere abenturan ezagutuko dituen pertsonek –adibidez, Carlota gerrillari karismaduna– betirako aldatuko dute Kapuscinski. Ilunaren bihotzera egindako bidaia horrek idazle bihurtuko du kazetaria.

Kapuscinski es un reportero polaco, idealista y amigo de las causas perdidas. En 1975 viaja a Angola, el último campo de batalla de la Guerra Fría. El país africano y las personas que conoce en su aventura, como la guerrillera Carlota, lo cambiarán para siempre. El viaje suicida al corazón de las tinieblas transforma al periodista en escritor.

86' / **Z** D: **Raúl de la Fuente & Damian Nenow** (España / Polonia)
**Saila** Sección: **Perlak**

## MANBIKI KAZOKU (UN ASUNTO DE FAMILIA)

**Asteartea, urriak 2** de octubre, martes **/ 20:00**



Ohi bezala lapurretan aritu eta gero, hotzez uzkurtutako neskato bat aurkituko dute Osamuk eta haren semeak kalean. Hasieran, Osamuren emazteak ez du neskatoa haiekin geratzerik nahiko, baina azkenean hartaz errukituko da. Familia zailtasunez ateratzen da aurrera, lapurreta txikiak eginez, baina hala eta guztiz ere zoriontsu dira, ustekabeko gertakari batek haien arteko loturak proban jartzen dituen arte.

Después de uno de sus habituales hurtos, Osamu y su hijo encuentran a una niña en la calle aterida de frío. La esposa de Osamu no quiere que se quede, pero acaba apiadándose de ella. A pesar de sobrevivir con dificultades, la familia es feliz, hasta que un incidente imprevisto revela un secreto que pone a prueba los lazos que les unen.

90' / **Z** D: **Hirokazu Koreeda** (Japón)
**Saila** Sección: **Donostia Saria**
**Proiekzio Bereziak** Proyecciones especiales Premio Donostia

## SE ROKH (3 FACES)

**Asteazkena, urriak 3** de octubre, miércoles **/ 20:00**



Neska landatar bati Teherango Kontserbatorioan ikasten jarraitzea debekatu nahi diote haren senideek, eta Behnaz Jafari aktore ezagunak ezingo dio ukorik egin haren laguntza-deiari. Behnazek, filmaketa bertan behera utzi, eta Jafar Panahi zinemagilearengana joko du gaztearen arazoen atzean zer misterio ezkutatzen den ezagutzeko. Hala, autoz joango dira herrialdeko ipar-mendebaldean dagoen landa-eremu menditsura eta aktoregai gaztearen herriko biztanle adeitsuak ezagutuko dituzte han. Baina bisitariak aurki jabetuko dira abegikortasuna bezain ahaltsua dela tradizioa…

La conocida actriz Behnaz Jafari no puede resistirse a la llamada de auxilio de una chica de provincias cuya familia quiere impedirle que siga estudiando en el Conservatorio de Teherán. Behnaz decide recurrir al cineasta Panahi para resolver el misterio que se esconde tras los problemas de la joven. Se desplazan en coche hacia el noroeste rural del país, donde conocen a los habitantes del pueblo montañoso. Pero no tardan en descubrir que la tradición es tan poderosa como la hospitalidad...

100' / **Z** D: **Jafar Panahi** (Irán)
**Saila** Sección: **Perlak**

PROGRAMA ZINEMALDIA

## L'HOMME FIDÈLE (A FAITHFUL MAN)

**Gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria**
Premio del Jurado al mejor guion

**Osteguna, urriak 4** de octubre, jueves **/ 20:00**



Mariannek Abel utziko du eta haren lagunik onenarekin joango da, Paulekin, espero duen haurraren aita baita. Zortzi urteren ondoren Paul hil egingo da. Abel eta Marianne berriro elkartuko dira, baina horrek jeloskor jarriko ditu Mariannen semea, Joseph, eta Paulen arreba, Eva, haurtzarotik Abelekin sekretuan maiteminduta egon dena.

Marianne abandona a Abel por Paul, su mejor amigo y padre del hijo que espera. Ocho años después, Paul fallece. Abel y Marianne vuelven a estar juntos, lo que provoca los celos tanto del hijo de Marianne, como de la hermana de Paul, secretamente enamorada de Abel desde su infancia.

75' / **Z** D: **Louis Garrel** (Francia)
**Saila** Sección: **Sail Ofiziala** Sección Oficial

## THE SISTERS BROTHERS

**Ostirala, urriak 5** de octubre, viernes **/ 20:00**



Charlie eta Eli Sisters aurkako mundu basati batean bizi dira. Odolez zikinak dituzte eskuak, ez dute inor hiltzeko kezkarik. Haien lana da. Charlie, anaia gaztea, hiltzeko jaio zen. Elik, ordea, bizitza normala eramatearekin egiten du amets. Komodoroak gizon bat akabatzeko kontratatuko ditu. Oregonetik Kaliforniara, ehiza errukigabea hasiko da, bi anaien arteko eromenezko lotura proban jarriko duen iniziazio-bidaia bat… gizatasunera eramango dituen bide bat?

Charlie y Eli Sisters viven en un mundo salvaje y hostil. Tienen las manos manchadas de sangre, es su trabajo. Charlie, el pequeño, nació para matar. Eli, sin embargo, sueña con llevar una vida normal. Ambos son contratados por el Comodoro para encontrar y matar a un hombre. De Oregón a California arranca una caza despiadada, un viaje iniciático que pondrá a prueba el demencial vínculo entre los dos hermanos. ¿Un camino que les descubrirá su naturaleza humana?

120' / **Z** D: **Jacques Audiard** (Francia / Bélgica / Rumania / España)
**Saila** Sección: **Perlak**

## CAPHARNAÜM

**Larunbata, urriak 6** de octubre, sábado **/ 20:00**



Nazioarteko auzitegia.
Zainek, 12 urteko mutilak, epailearen aurrean hitz egin behar du.
Epailea: Zergatik salatu dituzu zure gurasoak?
Zain: Bizia eman zidatelako.

Tribunal internacional.
Zain, un niño de 12 años, declara ante el juez.
El juez: ¿Por qué has demandado a tus propios padres?
Zain: Por darme la vida.

120'/ **Z** D: **Nadine Labaki** (Líbano)
**Saila** Sección: **Perlak**

## MIRAI

**Igandea, uriak 7** de octubre, domingo **/ 18:30**



Kun lau urteko haur mainatua da, lainezaz betea. Haren arreba Mirai jaiotzen denean, gurasoek kasu egiteari utziko diote eta aurrez inoiz bizi gabeko egoerak biziko ditu etxean. Baina, orduan, denboran zehar bidaiatuko du haren arreba nerabeak, Kunekin batera aparteko abentura bizitzeko, imajina daitekeenaz harago.

Kun, un niño mimado y consentido de 4 años al que sus padres dejan de prestar atención cuando nace su hermana Mirai, empieza a sufrir situaciones en casa que nunca había vivido. Pero entonces, la versión adolescente de su hermana viaja en el tiempo desde el futuro para vivir junto a Kun una aventura extraordinaria más allá de lo imaginable.

100' / **Z** D: **Mamoru Hosoda** (Japón)
**Saila** Sección: **Perlak**

**LABURDURAK** ABREVIATURAS
**Z: Zuzendaria** D: Director